



Miembros de Araba Bizirik presentes en Val di Susa participan en el "Climate Social Camp"

ARABA BIZIRIK :: 07/08/2023

El Climate Social Camp es un encuentro internacional de activistas climáticos y sociales, con el lema "Detener el hormigón, defender el agua".

[Euskara]

Aurten ere, Araba Bizirik-eko kideak Val di Susara joan gara. Urtero bezala, Val di Susan eta bailararen bukaeran kokatzen den Turin hirian, lurraldea defendatzeko egiten diren ekimenak

askotarikoak eta ugariak dira.

Turinen, uztailaren 26, 27 eta 28an, Climate Social Camp ospatu da, klima eta gizarte ekintzaileen

nazioarteko topaketa, aurten "Hormigoia gelditu, ura defendatu" lelopean egin dena.

Lurraldea

defendatzeko ekimenak indarra hartzen ari dira Italiako lurralde osoan, eta horregatik hainbat

mugimenduetako kideek kanpamentuan parte hartu zuten, hala nola, Florentzietatik gertu dagoen

Coltanoko base militarren aurkako borroka, Sizilia eta Italiako penintsula lotzeko zubi bat eraikitzearen kontrako mugimendua edo Milan eta Cortina d'Ampezzo artean ospatu nahi dituzten

2026ko neguko joko olinpikoen aurkako borroka.

Hilaren 27an, mahai-inguru bat egin zen, eta bertan Araba Bizirik-ek, Soulevement de la Terre,

Askapena, "El Sur Resiste" karabana eta mugimendu kurduarekin batera parte hartu genuen.

Eztabaidak interes handia sortu zuen eta 250 pertsona inguruk jarraitu zuten. Bertan, lurraldearen

eta uraren defentsa, sistema kapitalistaren aurkako borrokaren funtsezko alderdiak izan behar direla

argi gelditu zen.

Bisitaren bigarren hitzordua, Venaus-en, Val di Susan, uztailaren amaieran urtero ospatzen den

Festival Alta Felicità jaialdia izan da. Aurten, uztailaren 29tik 31ra ospatu da eta milaka eta milaka

pertsona bildu ditu (25.000 antolatzaileen arabera) bailararen aldeko eta abiadura handiko trenaren

eraikuntzaren aurkako aldarrikapen nagusi baten inguruan. Egungo gerra-testuingurua kontuan

hartuta (non baliabide izugarriak bideratzen diren bizitza eta planeta suntsitzera, babestera

beharrean), aurtengo jaialdia gai ekologikoan eta klima-aldaketan zentratu da, Turingo Climate Social Camp erakundearen ikuspegiarekin bat eginez.

Estilo ezberdinetako musika kontzertuetaz gain, jaialdian zehar hamaika hitzaldi, mahai-inguru eta liburu aurkezpen eman dira gai anitzekin, hala nola, errepresioa eta kartzela, Milan - Cortina d'Ampezzo neguko joko olinpikoak, Kurdistan, adimen artifiziala eta kontrol soziala, lurraldearen eta uraren defentsa, etab. Gerra ere oso presente egon da hainbat eztabaidatan, baita NATOk gaur egungo gatazken gorakadan mundu-gerra baterantz jokatzeko duen papera ere. Jaialdiaren bigarren egunean, urtero egin ohi den moduan, abiadura handiko trenaren obretara martxa bat egin zen, kasu honetan, San Didero eta Chiomontera. Horiek dira Italiako estatuak, bailaran, AHTren lanak hastea lortu duen bi leku bakarrak, obren eremua etengabe okupatuz, hesituz eta militarizatuz. San Diderora abiatu zen martxa, ehunka poliziak gau eta egun zaintzen duten obra gunera sartzen saiatu zen, hesia apurtu eta botaz, eta bertan liskarrak eta tentsio momentuak eman ziren poliziarekin.

Araba Bizirik-ez gain, aurten, Askapenako brigada bat eta Iruñeko Koadro Eskolako beste bat izan dira jaialdian, eta bertatik bertara ezagutu ahal izan dugu bailarako borroka historikoa. Horretaz gain, esperientziak partekatu ahal izan ditugu kapitalismoaren aurka eta lurraldearen defentsan borrokatzen duten beste mugimendu batzuekin, hala nola, azkenaldian hainbeste indar hartu duen Soulevement de la Terre mugimenduarekin.

[Castellano]

Este año también, miembros de Araba Bizirik nos hemos desplazado hasta Val di Susa. Como todos los años por estas fechas, las iniciativas en defensa del territorio que se celebran en el valle y en la próxima ciudad de Turín son diversas y abundantes. En Turín, los días 26, 27 y 28 de julio se ha celebrado el Climate Social Camp, encuentro internacional de activistas climáticos y sociales, con el lema “Detener el hormigón, defender el agua”.

Las iniciativas en defensa del territorio están cogiendo fuerza en todo el territorio italiano y es por eso que miembros de numerosos grupos tomaron parte en el campamento, como la lucha contra la base militar de Coltano cerca de Florencia, la construcción de un puente para unir Sicilia con la península italiana o la lucha contra los juegos olímpicos de invierno de 2026 que quieren celebrar entre Milan y Cortina d'Ampezzo y que suponen una grave amenaza para los Dolomitas.

El día 27, se celebró una mesa redonda en la que Araba Bizirik participamos junto a Soulevement de la Terre, Askapena, la caravana "El Sur Resiste" y el movimiento kurdo. El debate generó gran interés y fue seguido por alrededor de 250 personas y se centró en la idea de que la defensa del territorio y del agua deben ser aspectos centrales en la lucha contra el sistema capitalista. La segunda cita de la visita ha sido el Festival de Alta Felicita que se celebra todos los años en Venaus, en el Val di Susa, a finales de julio. Esta edición se ha celebrado del 29 al 31 de julio y ha vuelto a reunir miles y miles de personas, 25.000 según la organización, en torno a una reivindicación principal en defensa del valle y contra la construcción del tren de alta velocidad.

Además, el festival de este año se ha enfocado en el tema ecologico y en el cambio climatico, compartiendo el enfoque del Climate Social Camp de Turín, teniendo en cuenta el actual contexto de guerra, en el que ingentes recursos están destinados a la destrucción y no a la protección de la vida y del planeta.

Además de los conciertos, donde han participado grupos musicales de primer nivel, durante el festival se han dado infinidad de charlas, mesas redondas y presentaciones de libros con temáticas muy variadas, como represión y carcel, los juegos olímpicos de invierno Milan - Cortina d'Ampezzo, Kurdistan, la inteligencia artificial y el control social, la defensa del territorio y el agua, etc. La guerra también ha estado muy presente en varios debates, así como el papel que está jugando la OTAN en la escalada de los conflictos actuales hacia una guerra mundial.

El segundo día del festival se realizó una marcha a las obras del tren de alta velocidad en San Didero y Chiomonte. Estos son los dos únicos lugares en los que el estado italiano ha

conseguido

iniciar las obras del TAV en el valle, ocupando, vallando y militarizando la zona de obras permanentemente. En San Didero se produjeron enfrentamientos con la policía, al intentar entrar a

la zona de obras, custodiada día y noche por cientos de policías.

Aparte de Araba Bizirik, este año, una brigada de Askapena y otra de Koadro Eskola de Iruñea, han

acudido al festival, donde hemos podido conocer de primera mano la histórica lucha del valle.

Además, hemos podido compartir experiencias con otros movimientos que luchan contra el capitalismo y en defensa del territorio, como por ejemplo, Soulevement de la Terre.

[twitter:twitturl:<https://twitter.com/TxindurriG/status/1686080750385299457>]

<https://eh.lahaine.org/miembros-de-araba-bizirik-presentes>